

## Jaizkibelen sute berri bat

Joan den asteburuan **Jaizkibelgo** iparraldeko **50 ha erre ziren** itxura guztiz **nahita eragindako sute berri batean**. Aski da! Ez da posible **Natura 2000 Sarean** babesturik dagoen **balio handiko eremua** horretan behin eta berriz suteak gertatzea. **Gipuzkoako Foru Aldundiak ikerketa** serio eta sakona burutu behar du. **Ingurumen Fiskaltzak** eskua hartu behar du eta bere kabuz, edota Aldundiak bultzaturik, ikerketari ekin behar dio. **Ertzaintza** ezin da beste alde batera begira geratu, **neurriak hartu ditzala ingurumenaren aurkako terrorismo mota hau ezabatzeko**. Gipuzkoako Foru **Aldundiari** eskatzen diogu **erretako eremua berreskuratzeko lanei lehentasuna ematea eta zonaldea haziendei ixtea** landarediaren garapena errazteko xedez. Kalteturiko lurrak **Pasaiakoak** izanik, **Udalari** eskatzen diogu gure eskaria bere egin dezala eta Aldundiari helarazi diezaiola. Suteak militarren eremua ikutu zuen, nahiz eta soldadurik ez zen izan itzalketa lanetan. Hortaz, **Estatuko Gobernuari** entrenamendu eta tiro-zelaia erabiltzeari uko egitea eskatzen diogu, **utz dezala kudeaketa** behingoz Aldundiaren esku. Dena den, hori gertatu bitartean, espero dugu hemendik aurrera, bertan entrenatzeaz gain, **militarrak ere inplikatzeko** balio altuko ondare naturalaren kontserbazioan eta beste suterik balitz, itzaltzen laguntzera berehala etortzea.

Hortaz, eskatzen diogu:

- **Gipuzkoako Foru Aldundiari, ikerketa** serio eta sakona burutu dezala eta Fiskaltzarengana jo dezala.
- **Ingurumen Fiskaltzari**, eskua hartu dezala eta ofizioz ireki dezala ikerketa.
- **Ertzaintzari**, ikerketa Aldundia eta Fiskaltzarekin burutu dezala eta sute-arrisku egunetan ohiko tokietan zaintza areagotu dezala.
- Gipuzkoako Foru **Aldundiari, erretako eremua berreskuratzeko lanei lehentasuna ematea eta zonaldea haziendei ixtea** landarediaren garapena errazteko.
- **Pasaiako Udalari**, gure eskaria bere egin dezala eta Aldundiari helarazi diezaiola.
- **Estatuko Gobernuari** entrenamendu eremua kontserbatzen lagundu dezala eta, egungo erabilera alde batera utzita, **zonaldearen kudeaketa** Gipuzkoako Foru **Aldundiaren esku utzi dezala**.
- **Espainiako Ejerzitoari, ondare naturalaren kontserbazioan ere inplikatzeko** eta, eremua erabiltzen duten bitartean behintzat, beste suterik balitz, itzaltzen laguntzea.

[Harremanetarako: 609430438](http://609430438) o [naturzale@haritzalde.org](mailto:naturzale@haritzalde.org)



[www.haritzalde.org](http://www.haritzalde.org)